

1. BALIO PROPOSAMENA:

Zer behar edo arazo konpontzen ditugu?

Gure enpresak, bikoteek izan ditzazketen arazoetan laguntzen die. Horregatik, honako puntu hauetan laguntzeko gaitasuna dugu:

Aholkularitza: Bikote batek ezkontzea erabakitzen duenean, hasieran galdua sentitzea gerta daiteke. Wedding plannerraren funtzio nagusia bikoteei ekitaldiaren antolaketa osoan laguntzea da. Batzuetan, ekitaldiaren prestaketak estresagarriak izan daitezke. Beraz, Wedding planner bezala arduratuko gara prozesu osoan zehar beharrezkoak diren izapideak kudeatzeaz.

Sektorearen ezaqutza/ Denbora aurreztea: Wedding planner izanda, ezkontzetako sektorea ezagutzen dugu, horregatik bikoteari edozein alderditan aholkuak eman ahal izango dizkiogu, eta denbora aurreztuko diegu.

Aurrekontua: Wedding plannerraren figura gastu garrantzitsu bati lotzen zaio, baina bikoteek duten gustuetara eta aurrekontuetara gehien egokitzen diren hornitzaileak aukeratzeko laguntzen diegu.

Sormena/ dekorazioa: Dekorazioa aukeratzeko aholkuak emango dizkiegu, ezkontzaren xehetasun bakoitzean bikoteen nortasuna islatuko duen dekorazio pertsonalizatu batean, ezkontza bakarra bilatuz.

Kokalekua eta hornitzaileak: Tokiko hornitzaileak ezagutzen ditugunez, aholkatu diezaiekegu horietako zein egokitzen diren beraien nahietara.

Lasaitasuna ezkontzaren eguna: Ekitaldiaren egunean hor egongo garela jakiteak, hornitzaile guztiak koordinatzen, ezustekoei aurrea hartzen, ezusteko guztiak konpontzen, behar duten gonbidatuei kasu egiten etab.. ahalik eta gehien gozatu ahal izan dezaten lasaitasuna sortzen du.

Profesionaltasuna: Prestakuntza egokia dugu ekitaldien antolaketan, ordutegiaren planifikazioan, ezkontzan parte hartzen duen elementu bakoitza antolatzeko eta kudeatzeko gaitasuna dugu, ezusteko posibleei aurrea hartzen diegu, batez ere, horietako bakoitzari irtenbidea ematen dakigu, betiere b plan bat izanik.

Legezko izapideak: Kudeaketei buruzko informazioa eta ezkontza antolatzeko beharrezko dokumentazioa dugu.

Aholkularia eta laguntzaileak: Bikoteen eta gonbidatuen janzkeretan aholkatu, bilerak argazkilariarekin, musika aukeraketa, cateringa, lore-dekorazioa ...